# MVSIKASTE

**XXIII. Musika Astea Errenterian**
**1995eko maiatzaren 15etik 20ra**

**XXIII Semana Musical en Rentería**
**del 15 al 20 de Mayo de 1995**





# XXIII. MUSIKA ASTEA ERRENTERIAN

**1995eko maiatzaren 15etik 20ra**

Antolatzailea: Andra Mari Korala
Babeslea: Errenteriako Udaletxea

Honoko hauen diru laguntzaz:
Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila
Gipuzkoako Foru Aldundia
Kutxa Fundazioa
Gipuzkoako Abesbatzen Elkartea
Eroski, E. K.
Yosu, Musika Tresnak

Argazkiak: Foto Valentín



# XXIII SEMANA MUSICAL EN RENTERIA

**Del 15 al 20 de mayo de 1995**

Organiza: Coral Andra Mari
Colabora: Ayuntamiento de Rentería

Patrocinan:
Gobierno Vasco
Diputación Foral de Gipuzkoa
Fundación Kutxa
Federación Guipuzcoana de Coros
Eroski, S. C.
Yosu, Instrumentos Musicales

Fotografía: Foto Valentín

MUSIKASTEk, aurten ere, garai desberdinetako zenbait euskal musikagileren mendeurrenarekin topo egin du. Hauetariko zaharrenaren, Miguel de Arizuren (1595-1642), nortasuna argitzeko ikerketa teknikoa burutu ahal izango da.

Honekin batera, beste euskal musikagile baten, Fray Pedro de Tafallaren musika-lanak (1606-1660) osatuko du MUSIKASTE 95ek aintzinako euskal musikari eskeiniko dion tartea.

Rufino Lacy (1793-1867) bilbotar musikagileari, bere jaiotzaren bigarren mendeurrena dela eta omenaldi bat egingo dio bere bizitzari buruzko ikerketa guztiek 1795eko uztailaren 19an jaio zela adierazi dutelako. MUSIKASTEk, hala ere, 1793ko uztailaren 19an jaio zela ziurtatu ahal izan du.

Pedro Albeniz Basanta (1795-1855) Logroñon jaio eta bere aita Errioxakoa eta ama Tolosakoa baziren ere, txikitatik Donostian hazi zen eta bertako musika-mugimenduko pardaitea izan zen. Juan Ignacio Iztuetak kantatu zizkion "Gipuzkoako dantzak" herri-doinuak transkribatu zituen.

Oroigarrien hariari eutsiz, MUSIKASTE 95ek ondoko musikagile hauen jaiotza edo heriotza ekarriko du gogora: Manuel Ziorraga (Gasteiz, 1795-1882), Juan Jose Telleria (Astigarreta-Beasain, 1857-1895), Miguel Pedro Astrain Remon (Iruñea, 1850-1895), Jose Etxabe (Zumaia, 1895-1972), Manuel Landaluze (Orduña, 1895-1958), Victor Lasa Mendiluze (Alsasua, 1895-1968), Luis Aramaiona (Lantziego, 1895-1971), Julian Menendez Gonzalez (Santander 1895-1975), Juan Telleria Arrizabalaga (Zegama, 1895-1949).

Abangoardiako euskal musikagileei dagokien egunean, abangoardiako musikaren ildoari jarraituz sortzen ari diren euskal musikagileen lan berriak aurkeztuko dira. Bere musika-lanen erabateko estreinuak nagusituko dira.



Pedro Albeniz Basanta - Logroño (1795-1855)

*De nuevo MUSIKASTE se encuentra con la conmemoración centenaria de diversos compositores vascos de épocas diferentes.*
*El más antiguo, Miguel de Arizu (1595-1642), será objeto de un estudio técnico, que clarifique su personalidad.*
*A su lado otro músico vasco, fray Pedro de Tafalla (1606-1660), completará la visión panorámica, que MUSIKASTE 95 dirigirá a la música antigua vasca.*
*Rufino Lacy (1793-1867:), compositor bilbaino, será homenajeado en el segundo centenario de su nacimiento, por la circunstancia de que todos sus biógrafos afirman que nació el 19 de julio de 1795. Pero MUSIKASTE 95 ha podido comprobar que su verdadera fecha de nacimiento es la de 19 de julio de 1793.*
*Pedro Albéniz Basanta (1795-1855), nacido en Logroño de padre riojano y madre tolosana, desde muy niño se crió en San Sebastián y participó en el movimiento musical donostiarra. Matiz de valor singular es el haber transcrito las melodías populares de "Gipuzkoako dantzak" de Juan Ignacio de Iztueta, que éste le cantó.*
*También en línea de conmemoraciones de nacimiento o muerte MUSIKASTE 95 recordará a Manuel de Ciórraga (Vitoria-Gasteiz 1795-1882), Juan José Tellería (Astigarreta-Beasain 1857-1895), Miguel Pedro Astrain Remón (Pamplona 1850-1895), José Etxabe (Zumaia 1895-1972), Manuel Landaluce (Orduña 1895-1958), Víctor Lasa Mendiluce (Alsasua 1895-1968), Luis Aramayona (Lanciego 1895-1971), Julián Menéndez González (Santander 1895-1975), Juan Telleria Arrizabalaga (Zegama 1895-1949).*
*La jornada de músicos vascos de vanguardia volverá a presentar las producciones recientes de nuestros compositores más próximos a las corrientes musicales de vanguardia. En la programación de sus obras predominarán los estrenos absolutos.*


Juan Telleria Arrizabalaga - Zegama (1895-1949)

## MUSIKASTE "KOLDO MITXELENA" KULTURUNEAN

## MUSIKASTE EN EL "KOLDO MITXELENA"

Asteazkena
Mahai ingurua:
"Euskal Konposagileen Elkarte baten hutsunea"

**17**

Miércoles
Mesa redonda:
"Carencia de una Asociación de Compositores Vascos"

---

Osteguna
XX. mendeko musika

**18**

Jueves
Música del siglo XX

---

Ostirala
Pedro Albeniz-en Jaiotzaren II mendeurrena. Piano errezitaldia

**19**

Viernes
Recital de piano en recuerdo del II Centenario del nacimiento de Pedro Albeniz

# EGITARAU OROKORRA — PROGRAMA GENERAL

| Euskara | | Castellano |
| --- | --- | --- |
| Astelehena<br>Hasierako ekitaldia | **15** | Lunes<br>Acto de Apertura |
| Asteartea<br>Antzinako Musika | **16** | Martes<br>Música antigua |
| Asteazkena<br>Abanguardiako Euskal Musika | **17** | Miércoles<br>Músicos vascos de vanguardia |
| Osteguna<br>Kamarako Musika | **18** | Jueves<br>Música de Cámara |
| Ostirala<br>Koruen eguna | **19** | Viernes<br>Día Coral |
| Larunbata<br>Kontzertu sinfonikoa | **20** | Sábado<br>Concierto Sinfónico |



1995eko maiatzaren 15ean, astelehena, 20etan
Udaletxeko Areto Nagusian

# HASIERAKO EKITALDIA
# ACTO DE APERTURA

"El cantor y compositor Miguel de Arizu", Luis Robledoren eskutik hitzaldia.

"Pedro Albéniz y la música española para piano del siglo XIX", Gloria Emparanen eskutik hitzaldia.

"El cantor y compositor Miguel de Arizu", ponencia a cargo de Luis Robledo.

"Pedro Albéniz y la música española para piano del siglo XIX", ponencia a cargo de Gloria Emparan.

Lunes 15 de mayo de 1995, 20 horas
Sala Capitular del Ayuntamiento

# MIGUEL DE ARIZU

1595ean jaiotako kantari eta musikagilea da. Datu gutxi dago bere bizitzari buruz. Madrilgo Errege Jauregiko Artxiboan 1604ko azken hiruhilabetean eta hurrengo urteetan, 1614a arte, hain zuzen, kantaritxoa izan zela aipatzen da eta gero Errege Kaperako kontraltoa.
Castillakoan ari zela, 1629an Borgoñako ohizko plaza lortu zuen.
1642an, bi soldata horien truke eliz-errenta bat eman zioten Iruñeko Katedralean.
Harez gero ez da bere bizitzari buruzko datu-arrastorik gelditzen.
Ezagutzen diren musika-lan bakarrak "Filis de alma mía" kanta, "Vistióse el prado galán" erromantzea eta "Por coronar a María las flores se deojaron" gabon-kanta dira.

*Cantor y compositor, nacido en 1595, y cuya biografía permanece rodeada de gran penumbra.*
*En el Archivo del Palacio Real de Madrid está citado como cantorcillo en el último tercio de 1604 y en años posteriores hasta 1614, en que pasa a ser contralto de la Real Capilla.*
*En 1629 obtuvo la merced de una plaza ordinaria de Borgoña, junto con la de Castilla, que ya gozaba.*
*En 1642 se le permutaron estos sueldos por una renta eclesiástica en la catedral de Pamplona.*
*Después se desconocen más noticias sobre su vida.*
*Sus únicas obras conocidas son la canción "Filis del alma mía", el romance "Vistióse el prado galán" y el villancico "Por coronar a María las flores se deojaron".*

# PEDRO ALBENIZ BASANTA

1795ean jaio zen Logroñon. Mateo Albenizen semea zen eta berarekin hasi zituen musika-ikasketak.
Ondoren Parisa abiatu zen Herz eta Kalkbrenner-ekin ikasteko. Espainiara itzuli zenean, Donostiako Santa Maria parrokiako organo-jolea eta kapera-maisua izan zen 1820z geroztik, bere aitaren karguari jarraituz.
1830ean Madrilgo Kontserbatorioko irakasle izendatu zuten eta 1834an Errege Kaperako organo-jole.
Piano-metodo bat idatzi zuen eta 1840an aipatutako metodo hori izan zen Kontserbatorioko metodo ofiziala.
1841ean Isabel II.aren eta Maria Luisa Fernanda bere ahizparen piano-maisu izendatu zuten.
Espainiako piano-eskola berriaren sortzailetzat jotzen dute gaur egun. 70en bat musika-lan sortu zituen, gehienak pianorako eta era berean, zenbait kantu eta laukote.
1855ean hil zen Madrilen.

*Nació en Logroño en 1795. Era hijo de Mateo Albéniz, con quien hizo los primeros estudios musicales.*
*Después pasó a París, donde estudio con Herz y Kalkbrenner.*
*A su regreso a España fue organista y maestro de capilla de la parroquia de Santa María en Sebastián desde 1820, sucediéndole en el cargo a su padre.*
*En 1830 fue nombrado profesor en el Conservatorio de Madrid y en 1834 organista de la Real Capilla.*
*Escribió un Método de Piano, que en 1840 fue adoptado como oficial en el Conservatorio.*
*En 1841 fue nombrado maestro de piano de Isabel II y de su hermana la infanta María Luisa Fernanda.*
*Es considerado el creador de la moderna escuela de piano española. Compuso unas 70 composiciones, fundamentalmente para piano, algunas canciones y cuartetos.*
*Falleció en Madrid en 1855.*

# GLORIA EMPARAN

Irunen (Gipuzkoa) jaio zen. Donostiako Kontserbatorioan ikasi zuen eta bertan Piano-karreraren Amaierako Saria eskuratu zuen 16 urte zituela. Gero, lau urtetan zehar piano-ikasketak sakondu zituen Christianne Senartekin Parisen. Madrilera joan zen ondoren, bertako Musika Kontserbatorio Nagusian Javier Alfonso eta Pedro Espinosa irakasleekin Hobekuntza Ikastaroak burutzeko asmoz eta aipatutako ikastaroetan Ohorezko Saria eskuratu zuen. 1973z geroztik, Pariseko Europear Kontserbatorioko Monique Deschaussées irakaslearen aholkularitza izan du. Piano-kontzertuak emateaz gainera, Malaga eta Granadako Musika Kontserbatorio nagusietako irakaslea izan da. Eduardo Ocón (1833-1901) Malagako Musikagilearen piano-integrala grabatu ondoren, Espainiako Kultur Ministerioak ematen duen Diskaren Nazio-Saria eskuratu zuen 1980an.

Era berean, XVIII. eta XIX. mendeetan Espainian ekoiztutako piano-literaturari buruzko ikerketa garrantzitsua burutu du. 1980an, March Fundazioak beka bat eman zion, "XIX. mendean Espainian pianorako sorturiko musika" lana burutzeko eta duela gutxi, Andaluziako Juntaren Musika Dokumentazioko Tegiak Sari bat, Malagako Katedraleko Musika-artxiboaren katalogaziorako taldekoa izateagatik.
Beste zenbait argitarapen: "El piano en el primer Romanticismo"; "Los Estudios para Piano"; "El Pianismo español del siglo XIX: Fuentes para su estudio"; etab... Era berean, Espainiako Telebistarako "Café concierto" eta "Alcores" programak grabatzeaz gainera, Espainiako Irratiaren Artxiborako ere grabatu ditu beste zenbait lan. Gaur egun, Andaluziako Juntako Hezkuntza eta Zientzia Saileko Irakasle Zentruko Musika Aholkularia da Granadan.

*Nació en Irún (Gipuzkoa). Estudió en el Conservatorio de San Sebastián, obteniendo a los 16 años el Premio Fin de Carrera en Piano.*
*En París perfeccionó su técnica pianística durante cuatro años con Christiane Senart. Posteriormente finalizó los Cursos de Perfeccionamiento en el Conservatorio Superior de Música de Madrid, con Javier Alfonso y Pedro Espinosa, obteniendo Premio de Honor en los citados cursos. A partir de 1973 recibió los consejos de Monique Deschaussées, Profesora del Conservatorio Europeo de Música de París*
*Ha sido concertista de piano y profesora en los Conservatorios Superiores de Málaga y Granada.*
*Grabó la integral de piano del compositor malagueño Eduardo Ocón (1833-1901), grabación que obtuvo del Ministerio de Cultura el Premio Nacional del Disco 1980.*

*Ha desarrollado además una importante labor de investigación musical de la literatura pianística española de los siglos XVIII y XIX. En este ámbito obtuvo una Beca de la Fundación March (1980), para la realización del trabajo "Música española para piano en el siglo XIX", y, más recientemente, un Premio de la Junta de Andalucía, Centro de Documentación Musical, como miembro del equipo para la catalogación del Archivo de Música de la Catedral de Málaga.*
*Otras publicaciones: "El piano en el primer Romanticismo"; "Los Estudios para Piano"; "El Pianismo español del S. XIX: Fuentes para su estudio", etc... Además grabaciones para TVE en sus programas "Café concierto" y "Alcores", así como para el Archivo sonoro de Radio Nacional de España.*
*En la actualidad es Asesora de Música del Centro de Profesores de Granada, de la Consejería de Educación y Ciencia de la Junta de Andalucía.*

# LUIS ROBLEDO ESTAIRE

1952an jaio zen Madrilen. Musika-paleografia ikasi zuen Miguel Querolekin eta musikologia Samuel Rubiorekin. Madrilgo Musikako Errege Kontserbatorio Nagusiko musikologiako irakasle nagusia da. Gaur egun Musikaren Historia eta Estetikako Katedraduna da Madrid-Amanieleko Kontserbatorio Profesionalean. Musikologia-ikerketa eta azterketen X. deialdian (1987) Nazio-Saria eskuratu zuen "Vida y obra de Juan Blas de Castro (ca. 1561-1631) (Zaragoza: Institución Fernando el Católico, 1989) lanaren bidez. Era berean ondoko argitarapen hauen egilea da, besteak beste: "Los cánones enigmáticos de Juan del Vado" (Revista de Musicología, III, 1980), "La música en la corte madrileña de los Austrias" (Revista de Musicología, X, 1987) eta "La capilla real en el reinado de Felipe II" (III Semana de Música Española. El Renacimiento. Madrid: Comunidad de Madrid, 1988).

*Nació en Madrid, 1952. Estudió paleografía musical con Miguel Querol y musicologia con Samuel Rubio. Es profesor superior de musicologia por el Real Conservatorio Superior de Música de Madrid. Actualmente es catedrático de Estética e Historia de la Música en el Conservatorio Profesional de Madrid-Amaniel. Premio nacional de investigación y estudios musicológicos en su X convocatoria (1987) por el trabajo Vida y obra de Juan Blas de Castro (ca. 1561-1631) (Zaragoza: Institución Fernando el Católico, 1989). Es autor de, entre otras, las siguientes publicaciones: "Los cánones enigmáticos de Juan del Vado" (Revista de Musicologia , III. 1980), "La música en la corte madrileña de los Austrias" (Revista de Musicología, X, 1987) y "La capilla real en el reinado de Felipe II" III Semana de Música Española. El Renacimiento. Madrid: Comunidad de Madrid, 1988).*





1995eko maiatzaren 16an, asteartea, 20etan
Kaputxinoen elizan

# ANTZINAKO MUSIKA
# MUSICA ANTIGUA

Romance a 3 "Vistióse el prado galán" ............. Miguel de Arizu (1595-1642)
Filis del alma mía ............................................ Miguel de Arizu

Oh! Inefable ..................................................... Fr. Pedro de Tafalla (Tafalla, 1606-1660)
Ave Maris Stella ............................................... Fr. Pedro de Tafalla
Parce mihi Domine ........................................... Fr. Pedro de Tafalla
Medio registro alto de segundo tono ................ Fr. Pedro de Tafalla
Lamentaciones de Semana Santa ...................... Fr. Pedro de Tafalla
- Lectio Prima in Coena Domini
- Lectio Prima in Parasceve
- Lectio Tertia in Sabbato Sancto

Tiento de septimo tono de dos tiples ................ Fr. Pedro de Tafalla
Visperas a 7 ...................................................... Fr. Pedro de Tafalla
- Dixit Dominus
- Beatus vir
- Laudate Dominum omnes gentes
- Laetatus sum
- Lauda Jerusalem Dominum
- Magnificat

Invitatorio a 8 para los maitines de Navidad ....... Fr. Pedro de Tafalla

Nuria Llopis, arpa
Itziar Atutxa, biolontxeloa
Javier Sarasua, organo eta klabezina

CAPILLA PEÑAFLORIDA
Zuzendaria, Jon Bagües

Martes 16 de mayo de 1995, 20 horas
Iglesia de Capuchinos

# FRAY PEDRO DE TAFALLA

1606an jaio zen Tafallan (Nafarroa). Bere izen zibila Pedro Huarte Rodero izan zen. Bederatzi urte zituenean, Avilako Katedralera eraman nahi izan zuten tiple kantatzera baina bidean zela Eskorialeko Monastegian atsedena hartu zuen eta prioreak bertan gelditzeko agindu zion.
1623an jeronimotar fraidetzat profesa egin zuen eta 1627an apaiztu zen. Ondoren, kapera-maisu izendatu zuten.
Ordena bereko beste zenbait monastegiri ere onuragarri gertatu zitzaion bere artea. "Para el Escorial representa en el siglo XVII, lo que el padre Soler en el XVIII" (Samuel Rubio).
1660ko martxoaren 6an hil zen Escorialen apoplegiaz. Beste zenbait musika-lanen artean ondoko hauek aipa daitezke: zortzi ahots eta bi organutarako Meza, eta hamabi ahots eta hiru organo jarraitutarako Meza. Zazpi eta hamar ahotsetarako Meza arpa eta bi organoren laguntzaz. Eguberrietako Dei-otoitzak zortzi ahots eta bi organotarako. Irakasketak eta Hil-otoitzak, zortzi ahotsetarako laguntza eta kontrabaxuz. Auhenak, zortzi ahotsetarako bi baxu eta liraren laguntzaz. Letaniak, salmoak eta beste zenbait himno.

*Nació en Tafalla (Navarra) en 1606. Su nombre civil era Pedro Huarte Rodero.*
*A los nueve años fue trasladado como tiple a la Catedral de Avila, pero en el camino se detuvo en el monasterio del Escorial, donde el prior hizo que se quedase aquí.*
*En 1623 profesó como monje jerónimo y en 1627 fue ordenado sacerdote, siendo a continuación nombrado maestro de capilla.*
*Con su arte aprovechó también a otros monasterios de su Orden. "Para el Escorial representa en el siglo XVII, lo que el padre Soler en el XVIII" (Samuel Rubio).*
*Murió de apoplegia el 6 de marzo de 1660 en el Escorial. Algunas de sus obras: Misa a 8 y dos órganos, y a 12 y 3 órganos continuos. Misa a 7 y 10 con arpa y dos órganos. Invitatorios de Navidad, a 8 y dos órganos. Lecciones y Responsos de difuntos, a 8 con acompañamiento y contrabajo. Lamentaciones, a 8 con dos bajos y lira. Letania, salmos e himnos varios.*

# CAPILLA PEÑAFLORIDA

1985ean sortu zuen Jon Bagües musikologoak, Euskal Herrian Ilustrazioaren garaiko musika bultzatu zuen Peñafloridako Kontearen heriotzaren bigarren mendeurrenean, hain zuzen. Jose Radak zuzendu zuen hasieran taldea, eta berak erakutsi zion nola kantatu behar zen antzinako musika. Jose de Torres, Juan García de Salazar, Fray Agustin de Etxebarria, Fray Joakin de Asiain, Mateo Antonio Pérez de Albeniz, Joan Antxieta eta Fray Pedro de Tafalla musika-lanez osaturiko programa monografikoak burutu ditu. Era berean, Jose Bakedano, Fermin Arizmendi, Juan eta Matias Durango, Juan Hidalgo, Manuel Gamarra, Aita Antonio Soler eta Joan Frances Iribarren-en lanak transkribatu ditu. Domenico Scarlatiren "Re Maioren idatzitako Meza, Arantzazuko Meza"ren gaur egun lehenengo aldiz entzuteko aukera eman zuen 1985ean.

Kontzertu asko eman ditu Espainia eta Europako zenbait herritan zehar. RNEk antolatu eta irratiz emandako zenbait kontzertutan parte hartu du eta horien artean 1994ko abuztuan UERen bidez Joan Antxietaren musika-lanez osaturiko kontzertu monografikoa azpimarra daiteke.
Era berean, Donostiako Musika Hamabostaldian, Granadako Musika eta Dantzako Jaialdian, Errenteriako MUSIKASTEn, Sajarrako (Errioxa) Jaialdian, Gasteiz eta Lizarrako Antzinako Musika Asteetan, Darocako Jaialdian, Cittá di Castello-ko Nazioen Jaialdian parte hartu du. James Bowman, Eduardo López Banzo, Josep Cabré eta Christoph Coin musikariekin lankidetzan aritu da. Duela gutxi, Christoph Coin eta Limoges-eko L'Ensemble Baroque taldearekin Jose Nebra-ren "Viento es la dicha de amor" zartzuela barrokoa grabatu du. Salamancako Unibertsitateko Orkestra Barrokoak, Barchetto Musicale eta Toulouseko Les Sacaboutiers taldeek parte hartu dute bere ekoizpenetan.

Musika antzeztuaren arloan, "Euskal Herrian Ilustrazioa" ri buruzko ekoizpenak eta G.B. Pergolessiren "Flaminio" eta "La Serva Padrona" operei dagozkienak azpimarra daitezke.
Jose Torres, Juan García de Salazar, Joakin de Asiain musikagileen omenez hainbat diska grabatu ditu. Era berean, Peñaflorida Kaperak lehenengo kontzertuan kantatutako musika-lanez osaturiko diska grabatu du Jose Rada lehenengo zuzendariaren oroimenez.
Gaur egun, eta Jose Rada zendu zenetik, Jon Bagüesen eskutan dago musika-zuzendaritza.

*Nace en 1985, por iniciativa del musicólogo Jon Bagüés, coincidiendo con el bicentenario de la muerte de Xabier Maria de Munibe, Conde de Peñaflorida, impulsor de la Ilustración musical en el País Vasco. José Rada fue su primer director y adiestró al grupo en la interpretación de la música antigua. Ha desarrollado programas monográficos dedicados a las figuras de José de Torres, Juan García de Salazar, Fray Agustín de Echevarria, Fray Joaquin de Asiain, Mateo Antonio Pérez de Albéniz, Juan de Antxieta y Fray Pedro de Tafalla.*
*Igualmente, con transcripciones propias, ha presentado obras de autores como José de Baquedano, Fermín de Arizmendi, Juan y Matías de Durango, Juan Hidalgo, Manuel de Gamarra, Fray José de Larrañaga, Padre Antonio Soler y Juan Francés de Iribarren. Es destacable su trabajo en la primera audición contemporánea de la Misa en Re Mayor, "Misa de Aranzazu", de Domenico Scarlatti, en el año 1985.*

*Su actividad concertística se ha desarrollado por toda la geografía del Estado y en algunos países europeos. Ha intervenido en diversos ocasiones en conciertos organizados y transmitidos por R.N.E., entre los que cabe destacar el ofrecido el pasado mes de agosto de 1994 a través de la UER, con un programa monográfico dedicado a la obra de Juan de Antxieta. Ha participado en festivales como la Quincena Musical Donostiarra, Festival de Música y Danza de Granada, MUSIKASTE de Rentería, Festival de Sajazarra (La Rioja), Semanas de Música Antigua de Vitoria y Estella, Festival de Daroca, Festival dd Astorga, Festival de Forcalquier (Francia), Festival de las Naciones de Cittá di Castello...*
*Ha colaborado con músicos como James Bowman, Eduardo López Banzo, Josep Cabré y Christoph Coin. Con éste último y con l'Ensemble Baroque de Limoges ha grabado recientemente la zarzuela barroca de José de Nebra "Viento es la dicha de amor". Han participado en sus producciones la Orquesta Barroca de la Universidad de Salamanca, el Bancheto Musicale y Les Sacaboutiers de Toulouse.*

*En el ámbito de la música escénica son reseñables sus producciones sobre la "Ilustración en el País Vasco" y las dedicadas a "Flaminio" y "La Serva Padrona" óperas ambas de G. B. Pergolesi.*
*Tiene en su haber diversas producciones discográficas dedicadas a las figuras de José de Torres, Juan García de Salazar, Joaquín de Asiain, así como una dedicado a la memoria de su primer director, José Rada, que incluye obras de diversos autores españoles ofrecidas en la primera audición por la Capilla Peñaflorida.*
*En la actualidad, y desde el fallecimiento de José Rada, la dirección musical es desarrollada por Jon Bagüés.*

Miguel de Arizuren biografia 10. orrialdean
*Biografía de Miguel de Arizu en página 10.*



1995eko maiatzaren 17an, asteazkena, 20etan
Kaputxinoen elizan

# ABANGUARDIAKO EUSKAL MUSIKA
# MUSICOS VASCOS DE VANGUARDIA

Argia eta itzala (kitarra) ........................ Joseba Torre
(Bilbo, 1968- )

Hitzaro (Flauta eta kitarra) ........................ Ramón Lazkano
(Donostia 1968- )

*Los tres encuentros ........................ Hilario Extremiana
(Ahotsa, flauta eta kitarra) — Miranda de Ebro 1958- )
- Un niño de tersa frente
- Pasó el tiempo
- Cae la tarde

Dos sofismas y un suspiro ........................ Fco. Ibañez Irribarría
(Flauta eta kitarra) — (Oyón)

*El cristal y la llama ........................ Antonio Lauzurika
(Flauta, biola eta kitarra) — (Vitoria-Gasteiz 1964- )

* Atxagaren bi poemarentzako musika ........ Iratxe Arrieta
(Ahotza, flauta eta kitarra) — (Bilbo 1968- )
- Bizitzak
- Etxekoak VII
(Sagarrondo ttipi bati, lo kanta)

María Folcó, mezzosopranoa
Mario Clavell, flauta
Carlos Seco, biola
Eugenio Tobalina, kitarra

* Estrenaldi nagusia

Martes 17 de mayo de 1995, 20 horas
Iglesia de Capuchinos

# JOSEBA TORRE ALONSO

1968an jaio zen Bilbon. Musika-ikasketak burutu zituen Bilboko Juan Crisostomo Arriaga Kontserbatorioan eta Juan de Antxieta Musika Ikastetxean. Ondoren, Madrileko Kontserbatorioan eta beranduago Parisekoan sakondu zituen ikasketak Bereau irakaslearekin Bizkaiko Foru Diputazioa eta INAEMen beka baten laguntzaz. 1992an Musika Garaikideari buruzko ikastaroetan parte hartu zuen Bruselas eta Darmastadt-en (Alemania). 1993an "Pablo Sorozabal" lehiaketa irabazi zuen "Quattuor a cordes" musika-lanaren bidez eta 1994an SGAEren lehiaketan saria eskuratu zuen orkestra eta banda magnetikorako idatzitako "Más libre y más cautivo" lanaren bidez. 30 urte arteko berrogeita hamasei musikagileren artean eskuratu zuen aipatutako saria. 1995ean Murciako "Concurso Internacional de Música para Orquesta"ren 1. saria lortu du.

*Nació en Bilbao en 1968. Hizo sus estudios musicales en el Conservatorio Juan Crisóstomo Arriaga y en el Centro de Estudios Musicales Juan de Antxieta, ambos de Bilbao. Amplió estudios en el Conservatorio de Madrid, para transladarse luego al Conservatorio de París, becado por la Diputación Foral de Bizkaia y el INAEM, teniendo por profesor a Bereau. En 1992 asistió a los cursos de Música Contemporánea de Bruselas y Darmstadt (Alemania). En 1993 ganó el concurso "Pablo Sorozabal" con su obra "Quattuor a cordes" y en 1994 obtuvo el galardón del concurso de la Sociedad General de Autores Españoles (SGAE) con su obra "Más libre y más cautivo", para orquesta y banda magnética. Obtuvo este premio entre cincuenta y seis compositores menores de 30 años. En 1995 acaba de obtener el 1er premio del Concurso Internacional de música para Orquesta de Murcia.*

# RAMON LAZKANO ORTEGA

Donostian jaio zen 1968an. Piano eta konposizioa ikasi ditu Donostiako Musika Kontserbatorio Nagusian Juan Padrosa eta Francisco Escudero maisuekin. Harmoniako Bigarren Saria lortu zuen 1984an eta konposizioko Lehenengoa 1986an. Gipuzkoako Foru Diputazioaren beka baten laguntzaz, Pariseko Musika Kontserbatorio Nagusian konposizio eta orkestrazio-ikasketak burutu ditu Alain Bancquart eta Gérard Grisey-ekin; musika-informatika IRCAMen Tristan Murail eta Philippe Manoury-rekin. Konposizioko Lehenengo Saria irabazi zuen 1990ean eta sakontze-zikloan onartu zuten. Sasakawa Fundazioaren beka bati esker, azterketa eta konposizio-ikasketak burutu ditu Montrealen Gilles Tremblay-ekin. Azterketa eta konposizioari buruzko zenbait ikastaro eta mintegitan izan da Helmut Lachenmann, Klaus Huber, Pierre Boulez, Henri Dutilleux, Brian Ferneyhough, Franco Donatoni, Cristobal Halffter eta Luis de Pablorekin. Era berean, Montrealeko Mc Gill Unibertsitateko hizkuntz ikastaroetan esku hartu du.

XX. mendeko Musika eta Musikologiari dagokion Dotoretza-ikasketen Diploma atera du Pariseko "Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales" ikastexean Hugues Dufourt-en zuzendaritzapean burututako "Les polyrythmies dans la musique savante du XXème siècle; historique et critique. (Messiaen, Ligeti, Carter)" memoriaren bidez. Bere konposizioengatik zenbait sari jasotzeaz gainera (JONDEko konposizio-lehiaketan aipamen berezia, Amsterdam-eko Gaudeamus lehiaketan ere aipamen berezia 1992an) Donostiako Musika Hamabostaldia, Juan March Fundazioa, Festival de Musique de Saint-Denis, Ensemble Territoires, ADIAM 78, Biarritz Culture eta beste zenbait erakunde eta jaialdik enkarguak eman dizkiote. Frantzia, Espainia, Alemania, Holanda, Italia, Ukrania, Kanada eta beste zenbait herritan jo dituzte bere musika-lanak eta ondoko jaialdi hauetan entzun ahal izan dira: Radio France-ko "Présences 92", Kiev-eko International Youth Music Forum, Gaudeamus Muziekweek, MUSIKASTE, Musica Senza Frontiere (Bologna), Hebischer Rundfunk, etab...

Saint-Deniseko Musika Jaialdiak Mussorsky-ren Heriotzaren Kantu eta Dantzen orkestrazioa agindu dio eta Dmitri Hvorostonsky-k estrenatu du Picardia-ko Sinfonietta-rekin batera Louis Langrée-ren zuzendaritzapean. "Tendencias de la Música Contemporánea" Mintegiaren zuzendaria izan da Euskal Herriko Unibertsitatean 1994an eta Versalles-eko MAFPENek antolatutako azterketa-mintegietako hizlaria 1993 eta 1994an. Patrick Zygmanowski-k "Hitzaurre bi" piano eta orkestrako kontzertua estrenatu zuen CNSMeko Orkestrarekin batera Jean Sébastien Béreau-ren zuzendaritzapean Parisen 1993ko urrian eta 1994-95 denboraldian Marta Zabaletak eta Bilboko Orkestra Sinfonikoak jo dute Bilbon. Gaur egun Erromako Historia, Arkeologia eta Arte Ederretako Espainiar Akademiaren bekarioa da. 1995ean Miarritzeko Musika Jailadian lehenengo aldiz joko den "Auhen Kantuak" koru eta Orkestrarako musika-lana burutzen ari da.

*Nacido en San Sebastián en 1968.*
*Estudia piano y composición con Juan Padrosa y Francisco Escudero en el Conservatorio Superior de San Sebastián, donde obtiene un segundo premio de armonía (1984) y un primer premio de composición (1986). Becario de la Diputación Foral de Gipuzkoa, es admitido en el Conservatorio Nacional Superior de Música de París, donde estudia composición y orquestación con Alain Bancquart y Gérard Grisey; informática musical en el IRCAM con Tristan Murail y Philippe Manoury. Obtiene el Primer Premio de Composición en 1990, y es admitido en el ciclo de perfeccionamiento. Becario de la Fundación Sasakawa, estudia composición y análisis en Montreal con Gilles Tremblay. Ha seguido cursos y seminarios de análisis y composición con Helmut Lachenmann, Klaus Huber, Pierre Boulez, Henri Dutilleux, Brian Ferneyhough, Franco Donatoni, Cristóbal Halffter, Luis de Pablo. Ha seguido igualmente los cursos de linguística de la Universidad Mc Gill en Montreal.*

*Obtiene igualmente un DEA (Diploma de Estudios de Doctorado) en Música y Musicología del siglo XX en la Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales de París con su memoria "Les polyrythmies dans la musique savante du XXème siècle; historique et critique. (Messiaen, Ligeti, Carter)" bajo la dirección de Hugues Dufourt.*
*Ha recibido diversos premios por sus composiciones (mención especial del concurso Gaudeamus 1992, mención especial en el concurso de la Joven Orquesta Nacional de España,...), y encargos de Donostiako Musika-Hamabostaldia, Fundación Juan March, Festival de Musique de Saint-Denis, Ensemble Territoires, ADIAM 78, Biarritz Culture, etc... Sus obras han sido interpretadas en varios países (Francia, España, Alemania, Holanda, Italia, Ucrania, Canadá,...)y en el marco de diferentes festivales ("Présences 92" en Radio-France, International Youth Music Forum de Kiev, Gaudeamus Muziekweek, MUSIKASTE, Musica senza Frontiere en Bolonia, Hebischer Rundfunk, etc...).*

*Su orquestación de los Cantos y Danzas de la Muerte de Mussorgsky ha sido encargada por el Festival de música de Saint-Denis, y estrenada por Dmitri Hvorostonsky con la Sinfonietta de Picardía dirigida por Louis Langrée.*
*Ha sido director del seminario "TENDENCIAS DE LA MUSICA CONTEMPORANEA" en la Universidad del País Vasco (1994), y conferenciante en los seminarios de análisis organizados por la MAFPEN de Versalles (1993, 1994).*
*Hitzaurre Bi, concierto para piano y orquesta estrenado en octubre de 1993 por Patrick Zygmanowski Y Jean-Sébastien Béreau al frente de la Orquesta del CNSM en París, ha sido interpretado en Bilbao por Marta Zabaleta y la Orquesta Sinfónica de Bilbao durante la temporada 1994-95.*
*Actualmente es becario de la Academia Española de Historia, Arqueología y Bellas Artes de Roma. Trabaja en la obra Auhen Kantuak para coro y orquesta que será estrenada en el Festival de Música de Biarritz en 1995.*

# HILARIO EXTREMIANA BARRASA

Miranda de Ebron jaio zen eta aitarekin eta bere lehenengo maisuarekin, Manuel Celdranekin hasi zen musika ikasten. Ondoren, konposizio-ikasketak burutu ditu Carmelo Bernaola, Juan Cordero eta Anton García Abrilekin. Orkestra-zuzendaritzako ikasketak egin ditu Enrique García Asensiorekin eta titulu nagusia lortu du aipatutako bi gaietan Madrilgo Errege Kontserbatorio Nagusian. Honekin batera, pianoa eta klarinetea ikasi ditu.
Zenbait topaketa eta sakontze-ikastarotan esku hartu du Luis de Pablo, Cristobal Halffter, Franco Donatoni (Chigiana Akademia) maisuekin, besteak beste.
Estilo eta jenero askotako musika-lanak sortu ditu eta ondoko jaialdi eta Espainiako eta Nazioarteko musika-topaketetan estrenatu dira: MUSIKASTE (Errenteria); Madrid (Auditorioa), Gasteiz, Bilbo (XX. mendeko Musika-Ihardunaldiak), Salamanca, Londres (Royal School of Music), Espinho (Portugal).
Zenbait musika-lan aipatu eta saritu dituzte: "En la niebla", "Bizitzari", "Bizkaia", "Juego de metales" (Jesus Guridi Bigarren Saria), "Referencias" (Saxofoierako konposizioko Nazioarteko Lehenengo Saria); "Sequi" Pithos b. (judutar gaiei buruzko konposizio-lehiaketako epaimahaiaren Aipamen Berezia. Los Angeles EEBB).
Musika-ikastexe askotako zuzendaria izateaz gainera, Gasteizko Udal Musika Bandaren zuzendariordea izan da eta, era berean, zenbait koru eta ganbera-taldetako zuzendaria.
Gaur egun, Bilboko Kontserbatorio Nagusiko harmonia eta orkestra-zuzendaritzako irakaslea da eta bertako ikasketa-burua. Barakaldoko Zigor Abesbatza zuzentzen ari da 1993z geroztik.

*Natural de Miranda de Ebro, se inicia en la música de la mano de su padre y de su primer maestro, Manuel Celdrán. Posteriormente estudia composición con Carmelo Bernaola, Juan Cordero y Anton Garcia Abril. Realiza sus estudios de dirección de orquesta con Enrique García Asensio, siendo titulado superior en ambas materias por el RCSM de Madrid. Paralelamenta a estas disciplinas estudia piano y clarinete.*
*Ha participado en diversas encuentros y cursos de perfeccionamiento con maestros como Luis de Pablo, Cristobal Halffter, Franco Donatoni (Academia Chigiana). Sus obras abarcan estilos y géneros muy diversos y han sido estrenadas en festivales y encuentros musicales nacionales e internacionales: MUSIKASTE (Rentería); Madrid (Auditorio Nacional), Vitoria, Bilbao( Jornadas de Música del S.XX), Salamanca, Londres (Royal School of Music), Espinho (Portugal).*
*Algunas de sus creaciones han sido consideradas y premiadas en Varios concursos: "En la niebla" , "Bizitzari", "Bizkaia", "Juego de metales" (Segundo premio Jesus Guridi), "Referencias" (Primer premio internacional de composición para saxofón). "Sequi" v. pitheos (mención especial del jurado del concurso de composición sobre temas judíos. Los Angeles (EE.UU.)). Ha sido profesor en diversos centros musicales y subdirector de la Banda Municipal de Vitoria, así como director de diversas formacionas corales y de cámara.*
*Actualmente es profesor da armonia y director de la orquesta del Conservatorio Superior de Bilbao, simultaneanda la función docente con la jefatura de estudios del centro. Desde 1993 dirige la Coral Zigor de Baracaldo.*

# FRANCISCO IBAÑEZ IRRIBARRIA

Oionen (Araba) jaio zen. Harmonia eta Kontrapunto-ikasketak egin ditu Bartzelonan Poch, Guinovart, Oltra eta Soler-ekin eta koru-zuzendaritzakoak E. Ribo-rekin. Ondoren, Fuga ikasi du Juan Corderorekin Bilbon eta Konposizioa eta instrumentazioa Carmelo A. Bernaolarekin.
Hezkuntz Zientzietako lizentziaduna da Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan eta gaur egun, Gasteizeko "Jesus Guridi" Musika Eskolako Musika Hizkera eta Koru-taldeko irakaslea da.

Koru, musika-tresna, ganbera-orkestra, banda, orkestra eta musika elektronikorako musika-lan asko idatzi ditu. Irakaskuntzaren arloan, musika-hizkera, kantu eta pianoari buruzko lan asko argitaratu ditu. Era berean, antzerkietarako lanak burutu ditu (Escuela de Payasos, Un tal Angel, Elsa Schneider) eta baita zinemarako ere (Marejada eta Así en el cielo como en la tierra). "Mester traigo fermoso" musika-lana Albert Nietok Elkar argitaletxerako grabatu duen "Música para la Paz" diskan sartu du.

*Nace en Oyón (Alava). Estudia en Barcelona Armonia y Contrapunto con Poch, Guinovart, Oltra y Soler y dirección coral con E. Ribó. En Bilbao estudia Fuga con Juan Cordero y en Vitoria Composición e instrumentación con Carmelo A. Bernaola.*
*Es licenciado en Ciencias de la Educación por la Universidad Autónoma de Barcelona, y actualmente es profesor de Lenguaje musical y Conjunto Coral en la Escuela de Música "Jesús Guridi" de Vitoria-Gasteiz.*

*Ha escrito numerosas composiciones para Coro, instrumentos solistas, orquesta de cámara, banda, orquesta y música electrónica. Dentro de su labor pedagógica ha publicado obras para lenguaje musical, canto y piano. Ha realizado, así mismo, obras para teatro (Escuela de Payasos, Un tal Angel, Elsa Schneider) y para Cine (Marejada y Así en el cielo como en la tierra). Su obra "Mester traigo fermoso" está incluída en el disco "Música para la Paz" que Albert Nieto grabó para la casa Elkar.*

## ANTONIO E. LAUZURIKA

1964an jaio zen Gasteizen. Harmonia eta konposizio-ikasketak burutu ditu Carmelo Bernaolarekin "Jesus Guridi" Musika Eskolan. Ondoren, C. Halffter. L. De Pablo, T. Marco, Jose Ramon Encinar eta beste zenbait musikagilerekin, Villafranca del Bierzo-ko musika garaikideko topaketetan, Granadako "Manuel de Falla" Ikastaroan eta Madrilgo Kontserbatorioan parte hartzeko bekak jaso ditu. Era berean, Darmstad-eko topaketetan 1990ean, Avigon-eko ikastaroan Elliott Carter-ekin 1991n eta Siena-ko Chigiana Akademian Franco Donatoni-rekin 1992an izan da zenbait bekari esker.
Juan March Fundazioak, Donostiako Hamabostaldiak, Europa Cantat-ek eta Alacanteko Musika-jaialdiak zenbait enkargu agindu dizkiote. Madrilgo Auditorioan, Juan March Fundazioan, Reina Sofía Museoan, Donostiako Euskal Musika Berriaren Ihardunaldietan eta Hamabostaldian, Errenteriako MUSIKASTEn, Bilboko XX. mendeko Musika Jaialdian eta Espainiako beste zenbait lekutan jo dituzte bere musika-lanak.
1989an SGAEk antolatutako Konposizio-Lehiaketan hirugarren saria irabazi zuen eta 1991n UNESCOko Musikagileen Nazioarteko Tribunak aukeratu zuen Parisen.

*Compositor vitoriano nacido en 1964. Se forma musicalmente en la Escuela de Música "Jesús Guridi" de Vitoria, donde estudia Armonía y Composición con C.A. Bernaola.*
*Posteriormente es becado para asistir a encuentros de música contemporánea de Villafranca del Bierzo, al curso Manuel de Falla de Granada y al Conservatorio de Madrid con compositores como L. De Pablo, C. Halffter, T. Marco, José R. Encinar, etc... También asiste como becado a los encuentros de Darmstad (1990), al curso de Avignon con Elliot Carter (1991) y a la Academia Chigiana de Siena con Franco Donatoni (1992).*
*Ha recibido encargos de la Fundación Juan March, de la Quincena Musical de San Sebatián, del Europa Cantat y del Festival de Música de Alicante. Sus obras han sido interpretadas en Madrid (Auditorio Nacional, Fundación Juan March, Museo Reina Sofía) en las Jornadas de Nueva Música Vasca de San Sebastián, en MUSIKASTE, en el Festival de Música del S. XX de Bilbao y en diversos puntos del territorio español.*
*En 1989 recibió el tercer premio del Concurso de Composición de la Sociedad General de España y en 1991 fue seleccionado para la Tribuna Internacional de Compositores de la UNESCO en París.*

## IRATXE ARRIETA

1968an jaio zen Bilbon.
Solfeo, piano, harmonia eta kontrapuntoko ikasketak burutu ditu Bilboko Musika Kontserbatorian Juan Cordero eta Margarita Lorenzo eta beste zenbait irakaslerekin. 1989az geroztik, konposizioa Josep Soler-ekin eta orkestra zuzendaritza lantzen ari da Bartzelonako Kontserbatorio Nagusian. Filosofia eta Letretako ikasketak ere egiten ari da Bartzelonako Unibertsitatean.
1991n SGAEren Bigarren Saria eta Generalitat-en Musikagile Gazteen Lehiaketaren Hirugarren Saria irabazi ditu beste zenbait sariren artean.
Ondoko jaialdi eta kontzertu hauetan programatu dituzte bere musika-lanak: XX. mendeko Musika Jaialdian Bilbon, Errenteriako MUSIKASTEn, Donostiako Musika Hamabostaldian, Madrilgo Auditorioan, Kataluniako zenbait aretotan eta Buenos Aireseko Colon Antzokian.
Ahots eta musika-talderako kantuak, haur-korurako zenbait musika-lan, hirukoteak, laukoteak, bakarrik jotzeko musika-tresnarako musika-lanak idatzi ditu besteak beste.

*Nació en Bilbao en 1968.*
*Estudia solfeo, armonía y contapunto en el Conservatorio de Música de Bilbao con Juan Cordero y Margarita Lorenzo, entre otros. Desde 1989 trabaja composición en Barcelona con Josep Soler y dirección de orquesta en el Conservatorio Superior de esa ciudad. Compagina sus estudios musicales con los de Filosofía y Letras en la Universidad de Barcelona.*
*Ha recibido varios premios, entre ellos el 2º Premio de SGAE (1991) y el Tercer Premio "Jóvenes Compositores" de la Generalitat (1991).*
*Su música ha sido programada en el Festival de Música del S. XX de Bilbao, MUSIKASTE de Rentería, Quincena Musical de San Sebastián, Auditorio Nacional de Madrid, en diversas salas de Cataluña, así como en el Teatro Colón de Buenos Aires.*
*Entre sus obras se encuentran varias canciones para voz y conjunto instrumental, obras para coro infantil, tríos, cuartetos, obras para instrumento solista, etc...*

# MARIA FOLCO

Bilbon bizi da txikitatik eta bertan burutu ditu musika-ikasketak (piano, harmonia, ganbera-musika, etab...), Filosofia eta Letrak, Arte Ederrak eta Kantua, azken hau bere amaren, Fina Folcoren zuzendaritzapean.
Errenazimenduko musika, barrokoa, oratorioa, lieda, opera eta musika garaikidea lantzen du orohar, baina Frantziako ahots-musikaren kantari zintzotzat jotzen dute.
Ibarra, González Sarmiento, Cabero, Viribay, Zanetti, eta beste zenbait piano-jolerekin batera kantatu du eta Azkue, Sanz Aragón, Torrent organo-joleekin, besteak beste.
Ondoko musika-talde hauekin kantatu du: berak sortutako Trío Barroco, Otz Taldea, Compostelako Unibertsitateko Ganbera-Taldea; honekin diskaren nazio-saria irabazi du.
Era berean, ondoko orkestra sinfoniko hauekin aritu da: Espainiako Nazionala, Euskadiko Sinfonikoa, Espainiako Rtve, Bilboko Sinfonikoa, Bordelekoa, Málaga, Valladolid, Córdoba, Santiago, Toulouse, Hamburg-eko N.D.R.
Tchakaroff, Gómez Martínez, Odón Alonso, Plasson, De Chicco, Callella, Rubio eta beste zenbait zuzendariren batutapean kantatu du.
Santander, Vigo, Donostiako Bach Jaialdian, Musique en Septembre, Música y Joventut jaialdi eta kontzertuetan parte hartu du.
Grabaketa asko burutu ditu Rne, Hamburg-eko Irrati-Telebistarentzat, diskak...

Reside en Bilbao desde su niñez, donde realizó sus estudios musicales (piano, armonía, música de cámara, etc.), la carrera de Filosofía y Letras, la de Bellas Artes, y la de Canto, ésta última bajo la dirección de su madre Fina Folco.
Su repertorio abarca desde la música renacentista, barroca, al oratorio, lied, ópera, y música contemporánea, si bien está considerada una fiel intérprete de la música vocal francesa.
Ha trabajado con los pianistas: Ibarra, González Sarmiento, Cabero, Viribay, Zanetti, ...
Con los organistas: Azcue, Sanz Aragón, Torrent,...
Con los grupos: Trío Barroco, del que es fundadora, Otz Taldea, Universitario de Cámara de Compostela, con el que consigue el premio nacional del disco.
Con las orquestas: Nacional de España, Sinfónica de Euskadi, Radio Televisión de España, Sinfónica de Bilbao, Sinfónica de Burdeos, Málaga, Valladolid, Córdoba, S. de Compostela, Toulouse, N.D.R. de Hamburgo, ...
Con los directores: Tchakaroff, Gómez Martinez, Odón Alonso, Plasson, De Chicco, Callella, Rubio,...
Ha participado en los Festivales de: Santander, Vigo, Bach de S. Sebastián, Musique en Septembre, Música y Joventut,...
Ha realizado numerosas grabaciones para R.N.E., R.T.V. de Hamburgo, discos, ...

# MARIO CLAVELL

Bilbon jaio zen. Zeharkako Xirulari dagozkion goiko mailako ikasketak burutu zituen Bilboko "J.C. Arriaga" Kontserbatorioan Constantin Adam-ekin eta Bikainez eta Ohorezko Aipamenaz bukatu zituen 1990ean. Era berean, Ganbera-musikako goiko mailako ikasketak egin zituen eta Bikain atera zuen ikasturte guztietan.
A. Marion, R. Dick eta A. Korneev-en ikastaroetan parte hartu du.
Moku-xirulako ikasketak eta Musika Barrokoa Jotzekoak ere burutu ditu Donostian eta Bartzelonan.
Ganbera-talde askotako partaidea izan da: EHUko Aintzinako Musikako Taldea, Bilboko Musika Barrokoko Hirukotea, Quodlibet Haize Boskotea, Galmour (Jazz), etab...
Gaur egun ondoko talde hauetan jotzen du: "Concentus sine Nomine" musika barrokoa jatorrizko musika-tresnaz jotzen duen taldea, Erdi Aroko musika jotzen duen Santiagoko Unibertsitateko Ganbera-Taldea.

## ERRENTERIAKO OIÑARRI KOROA

Jose Luis Ansorenak sortu zuen 1976an. Errenteriako Orereta Ikastolan eta beste zenbait ikastetxetan koru-kantua bultzatzeko egin zuen heziketa-lanak, Oiñarri emakumezko koruaren sorreran izan zuen bere gailurra, haurren koruko kideak hazten hasi zirenean. Gazteen koru hau Andra Mari Abesbatzaren oinarria da gaur egun. Era berean koru-zuzendaritza ikasteko eskola da eta bertatik balio handiko zuzendariak sortu dira.
MUSIKASTE 79an neska-mutilen koru bihurtu zen eta orduz gero kontzertu asko eman ditu Euskal Herrian zehar. Candas, Torrevieja, Avilés, Burgos eta Zaragozako jaialdi eta lehiaketetan parte hartu du. 1983, 1984 eta 1987an Madrilgo Kultur Ministeritzako Gazteriaren Zuzendaritza Nagusiak aukeratu zuen Cuenca-ko Polifoniako Gazte-topaketetan parte hartzeko.
Aitziber Arruabarrenak zuzentzen du gaur egun taldea.

*Fue fundado en 1976 por José Luis Ansorena. La tarea de educación para el canto coral que él mismo realizó en la Ikastola Orereta de Rentería y en otros centros de enseñanza, culminó con la creación del coro femenino Oiñarri, cuando los componentes del coro infantil fueron madurando. Este coro juvenil vino a ser la base y comienzo (Oiñarri) de la Coral Andra Mari, que tiene en esta agrupación su propia cantera. Sirve al mismo tiempo de escuela de dirección coral, de donde ya han surgido importantes valores. En MUSIKASTE 79 se presentó como agrupación mixta y desde entonces ha multiplicado sus actuaciones en el País Vasco.*
*Ha participado en festivales y concursos en Candas, Torrevieja, Burgos, Zaragoza, Avilés...*
*En 1983, 1984 y 1987 fue seleccionado por la Dirección General de la Juventud del Ministerio de Cultura (Madrid) para participar en el encuentro de Polifonía Juvenil de Cuenca.*
*Actualmente dirige el coro Aitziber Arruabarrena.*

## IRUÑEKO SINE NOMINE KOROA

Musika-arloan era guztietako esperientzia duen ikasle eta profesional-talde batek osatzen du "Sine Nomine" Musika Tailerra. Ganbera-taldea osatzen duten hemezortzi pertsonek kantu, musika zein konposizio-lanak konbinatzen dituzte.
Espainiako arte eta kulturaren hedapenaz eta sustapenaz kezkaturik, Espainiako Errenazimenduko musika-lanak eta XX. mendeko musikagileen lanak ikertzeari eta jotzeari ekin zien taldeak hasieran. Jendaurrean aurkeztutako egitarau guztietan azaldu dira gaur egungo musikagileen lanak, horietariko batzuk taldekideenak.
Musika-iharduerari ekin zionetik, kontzertu asko eman eta sari ugari jaso ditu taldeak: Jose Luis Echechipia taldekideak Juventudes Musicales de España erakundeak antolatutako "Concurso Permanente de Jóvenes Intérpretes" lehiaketan, organo-eran eskuratu zuena 1990ean. Taldeak berak, 1993an burututako lehiaketa berean Lehenengo Saria irabazi zuen Ganbera-taldeetako sailean.
Azken bolada honetan, Donostia, Valladolid, Iruñea, Medina del Campo, Vigo eta Madrilgo musika-zikloetan parte hartu du.

*El Taller de Música "Sine Nomine" está formado por un grupo de estudiantes y profesionales con variada experiencia en el ámbito musical. EL grupo constituye un conjunto de cámara de dieciocho personas que combinan labores tanto vocales e instrumentales como de composición.*
*Preocupado por el fomento y la difusión del arte y la cultura españoles el grupo dedicó su trabajo en sus primeros años al estudio e interpretación de obras del Renacimiento español, así como a autores del siglo XX. En la actualidad centra su trabajo en la música tanto instrumental como vocal del Siglo XX. Todos los programas presentados en público incluyen composiciones realizadas por autores contemporáneos, algunos de ellos miembros del propio grupo.*
*Desde que comenzó su actividad musical, el Taller ha ofrecido numerosos conciertos y obtenido diversos premios. Cabe destacar entre estos últimos, individualmente, el obtenido por José Luis Echechipia en el "Concurso Permanente de Jóvenes Intérpretes" organizado por Juventudes Musicales de España en la modalidad de órgano, en el año 1990. Como grupo, el Taller de Música "Sine Nomine" obtuvo el Primer Premio en la modalidad de Grupos de Cámara en dicho concurso en el año 1993.*
*Algunas de las últimas actuaciones han tenido lugar con motivo de diferentes ciclos musicales en las ciudades de San Sebastián, Valladolid, Pamplona, Medina del Campo, Vigo y Madrid.*

# BILBOKO EUSKERIA COROA

1984an Gorka Sierra Bilboko Koru Elkarteko zuzendari izendatu zutenean, iharduera-eskemak aldatu zituen eta etapa berri eta sutsuari eman zion hasiera. Aldaketa horien guztien emaitza da, hain zuzen, Euskeria Koroa zeina Koralaren eta Kontserbatorioko koruaren arteko hutsunea betetzen saiatu baitzen.
17 eta 25 urte bitarteko gazteez osatutako koruaren zuzendaritza eta prestaketa Juan Luis Vazquez Koru Elkartearen zuzendariordearen eskuetan utzi zuten.
Hasieran Koru Elkarteari eskatutako zenbait egitarautan langundu zuen, "Carmina Burana", " Beethovenen IX. Sinfonia", "Verdi eta Wagnerren Opera-koruak", etab...
1989an Euskeria Koroak bere nortasuna finkatu zuenean, bakarrik hasi zen kontzertuak ematen Espainian zehar eta Mikis Theodorakisen "Canto General" kantatu zuen egilearen beraren zuzendaritzapean.
Malagan bertako Orkestra Sinfonikoarekin batera eta Odon Alonsoren zuzendaritzapean kantatutako J. S. Bach-en "Nekealdia San Mateoren arabera" oso kontzertu garrantzitsua izan zen.

Ondoren, 1990ean, Koru Elkartearen zenbait kontzertutan lagundu zuen eta Donostia, Bilbo, Madrid eta Bartzelonan parte hartu zuen Gorka Sierraren "Gernika" Oratorioa estrenatuz. Era berean, Sevillako Expo-92aren amaieran esku hartu zuen B. Britten-en "War Requiem"a kantatuz Royal Philharmonic Orchestra-rekin batera M Rostropovich-en zuzendaritzapean.
1993an zenbait kontzertu eman zituen Hamburg-eko inguruetan eta 1994ko udan, Anjouko (Frantzia) lurraldeetan.

*Cuando en 1984 Gorka Sierra fue nombrado director de la Sociedad Coral de Bilbao, esta entidad varió sus esquemas de funcionamiento, iniciando una nueva y trepidante etapa.*
*Fruto de estas transformaciones es la creación del Coro Euskeria, que intentaba cubrir el vacío existente entre el Coro del Conservatorio y la Coral.*
*La preparación y dirección de este conjunto de jóvenes comprendidos entre los 17 y 25 años se encomendó a Juan Luis Vázquez, a la sazón subdirector de la Coral.*
*En sus inicios este coro colaboró en programas encomendados a la Coral, como "Carmina burana", "IX Sinfonía de Beethoven", "Coros de óperas de Verdi y Wagner", etc...*
*Cuando el Coro Euskeria adquirió identidad propia, comenzó en 1899 sus actuaciones independientes con "Canto General" de Mikis Theodorakis en España, bajo la dirección del propio autor.*
*Importante fue su presentación en Málaga con La Orquesta Sinfónica de la ciudad, interpretando "La Pasión según San Mateo" de J. S. Bach, bajo la dirección de Odón Alonso.*

*Ha continuado su colaboración con los distintos coros de la Sociedad Coral. Así, participó en el estreno del Oratorio "Gernika" de Gorka Sierra en Bilbao, San Sebastián, Madrid y Barcelona en 1990.*
*Igualmente en la Clausura de la Expo 92 en Sevilla, interpretando el "War Requiem" de B. Britten, junto a la Royal Philharmonic Orchestra bajo la dirección de M. Rostropovich.*
*En 1993 realizó un viaje a Hamburgo, donde ofreció varios conciertos en los alrededores de la ciudad.*
*En el verano de 1994 ofreció varios conciertos en distintas poblaciones de la región francesa de Anjou.*

# HONDARRIBIKO ESKIFAIA KOROA

Javier Bustok sortu zuen 1978an eta bere zuzendaria izan da 1994 arte, Maite Ocak bere txanda hartu duen arte, hain zuzen.
Sari asko jaso ditu:
- Tolosa: 1981ean Folkloreko Bigarren Saria eta Polifoniako Hirugarrena. 1986 eta 1987an Folklore eta Polifoniako Lehenengo Saria.
- Tours: Folklore eta Polifoniako Hirugarren Saria 1982an. Bigarren Saria era askean 1994an.
- Gorizia: Folklore Sailean Lehenengo Saria 1983an.
- Spitall: Folklore eta Polifoniako Bigarren Saria 1984an. - Mainhausen: Bigarren Saria 1988an.
- Avilés: Lehenengo Saria 1992an.
- Marktoberdorf: Hirugarren Saria 1993an.
Kultur Ministerioak 1993an emandako Arte Ederretako Zilarrezko Domina aipatu beharra dago azken merezimenduen artean.
Kontzertu sinfoniko-koral asko eman ditu Europako zenbait orkestra garrantzitsurekin batera, hauen artean: ElKeko Irrati Telebistaren Orkestra sinfonikoa, Varsoviako Filarmonikoa, "Camara Amadeus" eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.

Ondoko zuzendari hauen batutapean kantatu du: Rafael Frühbeck de Burgos, John Alldis, Tomas Aragüés, Gar Bertini eta Fedossejev. Bi diska grabatu ditu: Sorlekua (1985) eta XX. Mendeko Eliz Musika (1988).
Era berean, beste zenbait elkarterekin batera beste hainbat grabaketa egin ditu: Tolosako Nazioarteko Abesbatzen XII., XVIII eta XIX. Lehiaketetan, 1981, 1986 eta 1987an eta Loiolako Iñigoren Jaiotzaren V. Mendeurrena gogoratzeko Diska Ofiziala 1990ean.

*Fue fundado por Javier Busto en 1978, siendo él su director hasta 1994, año en que le sucedió en la dirección Maite Oca. Ha obtenido gran número de premios.*
*- Tolosa: Segundo Premio de Folklore y Tercero de Polifonía, 1981. Primer Premio de Folklore y de Polifonía, 1986 y 1987.*
*- Tours: Tercer Premio de Folklore y Polifonía, 1982. Segundo Premio en modalidad libre, 1994.*
*- Gorizia: Primer Premio de Folklore, 1983.*
*- Spitall: Segundo Premio de Folklore y Polifonía, 1984. - Mainhausen: Segundo Premio, 1988.*
*- Avilés: Primer Premio, 1992.*
*- Marktoberdorf: Tercer Premio, 1993.*
*Entre los últimos reconocimientos que ha merecido, destaca la Medalla de Plata de las Bellas Artes, que le concedió el Ministerio de Cultura en 1993.*
*En conciertos sinfónicos corales ha trabajado con importantes orquestas europeas: Sinfónica de la RTV de la CEI; Filarmónica de Varsovia, de Cámara Amadeus y Sinfónica de Euskadi. Bajo la dirección de Rafael Frühbeck de Burgos, John Alldis, Tomás Aragüés, Gar Bertini y Fedossejev.*

*Ha grabado dos discos propios: Sorlekua, 1985 y XX. Mendeko Eliz Musika, 1988. Ha participado en la grabación conjunta de XII, XVIII y XIX Certamen Internacional de Masa Corales de Tolosa, 1981, 1986 y 1987, y en el Disco Oficial del V Centenario del Nacimiento de San Ignacio de Loyola, 1990.*

# GOLDEN APPLE QUARTET (GOLDEN SAGARRAREN LAUKOTEA)

Bere emanaldi guztietan umorea erabiltzen duen kantari-taldea da. 1986ko urrian sortu zen Donostian, laukoteko kide bat ezkondu zen egunean. Harez gero elkarrekin jarraitzea erabaki zuten.
Kantatzen dutenaren ezaugarririk nabarmenena Godspel musika (Beltz izpirituala) da. Aipatutako musika-mota horrekin ekin zioten bere ibilbide artistikoari eta gero, era guztietako musika lantzen hasi ziren beti ere, edozein motatako jendearentzat atsegina den jazz-dinamikari eutsiz.
Jende asko izaten dute emanaldi guztietan eta horrek harri eta zur utzi ditu.
Donostia eta Getxoko Jazz jaialdietan izan dira 1990ean. Bartzelonako Tardor Jaialdian, 1991n. Torrelavegako Antzerki Jaialdietan, 1991 eta 1994an; eta Donostian 1991 eta 1992an. Donostiako Zinemaldian, 1992an.
Eduardo Errondosoro (Donostia, 1959), Loyola Garmendia (Donostia, 1959), Enrike Otxoa (Errenteria, 1950) eta Cruz Maria Larrañagak (Deba, 1957) osatzen dute Golden Apple Quartet.

*Se trata de un conjunto vocal, en el que el humor campea en todas sus actuaciones.*
*Se formó en San Sebastián en octubre de 1986, con motivo de la boda de uno de los componentes del cuarteto y en cuya ceremonia cantaron juntos y se comprometieron a formalizar su continuidad.*
*La nota predominante en su repertorio es la música Godspel (Negro espiritual), con la que comenzaron su andadura musical, siendo ampliada posteriormente con números de todo tipo, siempre manteniendo una dinámica jazzística, apta para todos los públicos.*
*Cuentan con un gran éxito de público, siendo ellos los primeros sorprendidos.*
*Han intervenido en los Festivales de Jazz de San Sebastián y Getxo en 1990. Festival Tardor de Barcelona, 1991. Festivales de Teatro en Torrelavega, 1991 y 1994; y San Sebastián 1991 y 1992. Festival de Cine de San Sebastián 1992.*
*El Golden Apple Quartet está integrado por Eduardo Errondosoro (San Sebastián 1959), Loyola Garmendia (San Sebastián 1959), Enrique Ochoa (Rentería 1950) y Cruz María Larrañaga (Deba 1957).*

Rufino Lacyren biografia 32. orrialdean.
*Biografía de Rufino Lacy en página 32.*

Juan Telleriaren biografia 33. orrialdean.
*Biografía de Juan Tellería en página 33.*





1995eko maiatzaren 20an, larunbata, 20,30etan
Kaputxinoen elizan

# AMAIERAKO KONTZERTUA
# CONCIERTO DE CLAUSURA

Suite en La op. 14 (1904): .......... José Mª Usandizaga (Donostia 1887-1915)

- Prélude. Moderato.
- Menuet.
- Sarabande. Tres moderé

La Dama de Aitzgorri .......... Juan Telleria (Zegama 1895-1948)

Mística .......... Carmelo A. Bernaola (Otxandio 1929- )

*Juan de la Cosa: URABA.......... Rafael Castro (Villarcayo 1936- )

- "Canto del cavallero". Andante con moto.
- "En el nombre del viento". Moderato.
- "Tragedia trovada". Largo.
- "Esperando la mano de nieve". Allegro moderato.
- "Canto del cavallero". Andante con moto

(Sobre textos de Antonio de Cabezón, Juan del Encina,
Alfonso Camín y José Bergamín)

Marta Knörr, mezzosopranoa
Errenteriako Andra Mari Korala
José Manuel Tife, zuzendaria
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
Juan José Mena, zuzendaria

* Estrenaldi nagusia

"Casa Erviti"-k utziriko Yamaha "Gran Cola" pianoa

Sábado 20 de mayo de 1995, 20,30 horas
Iglesia de Capuchinos

## CARMELO BERNAOLA

1929an jaio zen Otxandion (Bizkaia). Medina de Pomar-en hasi zituen musika-ikasketak eta gero Burgosen sakondu zituen. Bertako Orfeoian kantatzeaz gainera, Ingeniarien Erregimenduko Bandan eta Burgoseko Sinfonikoan klarinetea jo zuen. Blanco, Mesanza, Forns, Massó, Calés, Julio Gómez eta beste zenbait irakaslerekin ikasi du. 1957an "Samuel Ros" Lehiaketan Sari-ondokoa irabazi zuen. 1958an, berriz, Madrilgo Kontserbatorioko Lehenengo Saria eta Konposizioko Ezohizko Saria eskuratu zituen. 1959an "Erroma Saria" irabazi ondoren, Petrassi eta Pannirekin egin zuen lana Erroman. 1962an Musikako Nazio Saria lortu zuen. Madrilgo Kontserbatorioko irakaslea izan da urte askotan eta baita Granada eta Santiagoko Nazioarteko Mintegietakoa ere. 1977an Madrilgo Udalak "Reina Sofía" beka eman zion. Epaimahaikide izan da lehiaketa askotan eta bertako eta atzerriko erakunde askok agindutako lan asko burutu ditu. Gaur egun Madrilgo Udal Bandako musikaria da, eszedentzia-egoeran, eta Gasteizeko Kontserbatorioko zuzendaria.
Ondoko lan hauek idatzi ditu:: Espacios variados, Heterofonías, Impulsos, Sinfonía en Do, ganberako musika-lanak, Relatividades, polifoniak, Superficie nº1, 2, 3, etab...

*Nació en Ochandiano (Vizcaya) en 1929. Sus primeros estudios musicales los siguió en Medina de Pomar, ampliándolos después en Burgos, donde fue Cantor del Orfeón Burgalés, clarinetista de la Banda del Regimiento de Ingenieros y Profesor de la Sinfónica de Burgos. Entre sus profesores se encuentran Blanco, Mesanza, Forns, Massó, Calés y Julio Gómez. En 1957 fue Accésit del Premio "Samuel Ros". En 1958, Primer Premio y Premio Extraordinario de Composición en el Conservatorio de Madrid. En 1959 gana el Premio Roma y trabaja en Roma con Petrassi y Panni. Obtiene el Premio Nacional de Música en 1962. Ha sido durante varios años Profesor del Conservatorio madrileño, así como de los Cursos Internacionales de Granada y Santiago de Compostela. En 1977 obtuvo la Beca "Reina Sofía" del Ayuntamiento de Madrid. Ha formado parte de numerosos jurados y ha recibido encargos de instituciones nacionales y extranjeras. Actualmente, es profesor excedente de la Banda Municipal de Madrid y Director del Conservatorio de Vitoria.*
*Algunas de sus obras: Espacios variados, Heterofonías, Impulsos, Sinfonía en Do, Músicas de Cámara, Relatividades, Polifonías, Superficie nº1, 2, 3, etc..*

## RAFAEL CASTRO

1936an jaio zen Villarcayo-n. Piano, Harmonia eta konposizio-ikasketak burutu zituen Bilboko Kontserbatorioan.
Musika-konposizioko ikasketak sakondu zituen Fernando Remacha-rekin Iruñean, Harald Gensmer eta Günter Bialas-ekin Munichen eta André Jolivet-ekin Parisen.
Musika-irakaskuntzaren antolakuntzaz kezkaturik, Inglaterrako zenbait ikastetxe berezi eta Unibertsitatetan gonbidatu zuten.
Bizkaiko Diputazioak eta kanpoko eta bertako zenbait instituziok bekak eman dizkiote. Musikaren Historiari buruzko klaseak eman ditu Leioako Unibertsitateko institutu pilotoan eta Deustoko Unibertsitatean.
Duela 15 urte Bilboko Kontserbatorioko Harmoniako katedra atera zuen oposizioen bidez.
Ondoko lan hauek idatzi ditu: Argenta, Urabá, Kanta eta dantza, Baztan, Nora?, Zahar eta berri, Bizkaitarra, Abenduaren lauean, El último tamborilero...

*Nació en Villarcayo en 1936. Estudió Piano, Armonía y Composición en el Conservatorio de Bilbao.*
*Perfecciona sus estudios de composición musical con Fernando Remacha, en Pamplona, Harald Gensmer y Günter Bialas en Munich y con André Jolivet en París.*
*Preocupado por la organización de la enseñanza musical viaja a Inglaterra, siendo invitado en diversos centros especializados y universidades.*
*Ha sido becado por la Diputación de Vizcaya y otras instituciones nacionales y extranjeras.*
*Ha impartido clases de Historia de la Música en el instituto piloto de la Universidad de Lejona y en la Facultad de Filosofía y Letras de la Universidad de Deusto.*
*Desde hace quince años es catedrático de Armonía por oposición en el Conservatorio de Bilbao.*
*Algunas de sus obras: Argenta, Urabá, Kanta eta dantza, Baztan, Nora?, Zahar eta berri, Bizkaitarra, Abenduaren lauean, El último tamborilero...*

# ERRENTERIAKO ANDRA MARI ABESBATZA

Jose Luis Ansorenak sortu zuen 1966an eta bere zuzendaria izan da 1994ko otsaila arte, Jose Manuel Tife Iparragirreren eskuetan bere borondatez zuzendaritza utzi duen arte. Gasteiz, Tolosa, Torrevieja, Arezzo (Italia) eta beste zenbait lekutako koru-lehiaketetan parte hartu izan du, era guztietako sariak jasoz. Euskal Herria, Santander, A Coruña, Logroño, Zaragoza Bartzelona, Madrilgo jaialdi eta musika-aste eta ziklo ugarietan abestu du. Era berean, hainbat kontzertu-jira burutu ditu, Galizia, Andaluzia, Canarias, Suiza, Belgika, Austria, Hungaria eta beste zenbait herritan zehar. Aipatzekoak dira bereziki, 1991n bere sorreraren Zilarrezko Ezteiak ospatzen zirela eta, Argentinan zehar burutu zuena eta batez ere Buenos Aireseko Colon Antzokian eman zuen kontzertu gogoangarria.
Opera eta zartzuela garaian antzeztokietan parte hartzeaz gainera mota guztietako koru-musika lantzen du.
Bach, Händel, Mozart, Haydn, Liszt, Berlioz, Fauré, Debussy eta beste hainbat musikagileren meza handi, oratorio eta koru sinfonien bertsioek balio berezia izan dute.
Bere ezaugarririk nabarmenena Euskal Herriko musika lantzea da; hau dela eta, Errenterian burutzen den MUSIKASTE Euskal Musikagileen Astea sortu du. "Mostra" honetarako eta ERESBIL-ERESIAK urteroko ziklorako, EUSKAL ERESLARIEN BILDUMA Euskal Musikagileen Artxiboa sortu du, garai guztietako 1.000 eta gehiago euskal musikagileren 18 bat mila partituraz osaturiko bilduma. Honek nortasun zehatz eta berezia eman dio, eta horregatik esan daiteke bertako musikagileen egitarau monografikoak kantatzeko edota besteei gure herriko musikarien omenaldi-muntaietan laguntza eman eta aholkatzeko abesbatzarik prestatuena dela.
Euskal musikagileen lanez osatutako iraupen luzeko zazpi diska grabatu ditu eta beste zenbait musika-elkarterekin beste lau diskaren grabaketan parte hartu.
Garrantzi berezia izan du grabatu duen "Oi Betleem" azken diskak, Lorenzo Ondarra musikagileak Andra Mari Abesbatzari bere sorreraren Zilarrezko Ezteietan eskeini dion euskal gabon kanten suiteak.
Konpaktu-sisteman eginiko azkeneko grabaketak Aita Donostia eta Jesus Guridiren musika-lanak bildu ditu, eta hauetariko nagusiena Donostiako musikagile kaputxinoaren "Poema de la Pasion" partitura garrantzitsua da.

*Fue fundada en 1966 por José Luis Ansorena, siendo él su director hasta febrero de 1994, mes en el que por propia voluntad cede el puesto a José Manuel Tife Iparragirre.*
*Ha participado en distintos concursos y certámenes corales, como los de Vitoria, Tolosa, Torrevieja y Arezzo (Italia), con diversidad de premios.*
*Ha actuado en Festivales, Semanas y Ciclos musicales de todo el País Vasco, Santander, La Coruña, Logroño, Zaragoza, Barcelona,. Madrid, etc...*
*Ha realizado giras de conciertos por Galicia, Canarias, Andalucía, Suiza, Bélgica, Austria, Hungría, etc...*
*Especial interés tuvo la realizada en Argentina en 1991, año conmemorativo de sus Bodas de Plata fundacionales con actuación memorab]e en el Teatro Colón de Buenos Aires. Cultiva todo género de música coral, incluida la participación escénica en ópera y zarzuela.*
*Son especialmente valoradas sus versiones de las grandes misas, oratorios y sinfonías corales de Bach, Händel, Mozart, Haydn, Lizt, Berlioz, Fauré, Debussy, etc...*
*Su especialidad más característica es el cultivo de la música vasca que le llevó a crear el festival MUSIKASTE. Semana de Compositores Vascos que actualmente se celebra en Rentería. Para esta "mostra" y para el ciclo anual ERESBIL-ERESIAK ha creado el Archivo de Compositores Vascos EUSKAL ERESLARIEN BILDUMA, con la recopilación de más de 18.000 partituras de más de mil compositores vascos de todos los tiempos.*
*Esto le ha dado una personalidad específica clara, que le presenta como la agrupación coral más dispuesta a programas monográficos de autores locales tanto en su interpretación como en el asesoramiento a los demás y colaboración en el montaje de homenajes a los músicos vascos. Ha grabado siete discos de larga duración con obras de compositores vascos y ha participado con otras entidades musicales en otros cuatro.*
*Especial significado ha tenido el disco "Oi Betleem: suite de villancicos vascos dedicada a la Coral Andra Mari con motivo de la conmemoración de sus Bodas de Plata fundacionales por el compositor Lorenzo Ondarra. Su última grabación en sistema compacto abarca obras del P. Donostia y Jesús Guridi presentando como obra principal "Poema de la Pasión" importante partitura del músico capuchino donostiarra.*

# EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa 1982an sortu eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak garaturiko Proiektu Nazionala da. Bere zuzendari titular nagusienak hauek izan ditu: Enrique Jorda Maisua, 1982an Orkestrari hasierako prestakuntza eman ziona eta ondoren Maximiano Valdés Maisua. Gero Matthias Kuntzsch arduratu zen Orkestraz eta 1988-1993 urte bitartean Gómez Martínez Maisua izan da Musika Zuzendari. Gaur egun Hans Graf eta En Shao maisuak dira Musika Zuzendari lehena eta Zuzendari Gonbidatu Nagusi bestea.

Oso Luze joko luke bere kontzertuetan izan dituen Maisu eta Bakarlari gonbitatuak zerrenda batean ezartzeak, baina beraien artean oso izen nabarmenak ageri dira, bai Europako musika-munduan eta baita mundukoan ere.

Orkestrak eskaini ditu jadanik jendaurreko mila berrehun kontzertu eta aintzindari izan da bere Egoitzan entseiu orokor irekiak eskaintzen.

Orkestraren ohizko ihardueren artean ondorengoak aipa daitezke:

- Abonu-kontzertuak Donostian, Bilbon, Gasteizen, Iruñean eta Irunen; aldian aldiko jardunak Getxo, Barakaldo eta beste zenbait herritan.
- Ikasle eta gazteentzako kontzertuak Egoitzan.
- Eguberrietako kontzertuak.
- Herrialdeko Jaialdietan saioak: Musika-Hamabostaldia, OLBE Bilboko Opera-Denboraldia, MUSIKASTE, Bach Jaialdia, Musikaldia.
- Entseiu orokor irekiak Egoitzan.
- 1993az geroztik Orkestrak ekitaldi-sail bat antolatzen du Miramongo bere Egoitzan, "Miramongo Eguerdiak" deritzana. Horietan orkestra bereko talde txikiak, abonu-kontzertuetan programaturiko interpretatzaile gazteak, kamara-koruak eta organo-joleak aritzen dira.
- Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren Kamara-Orkestra. Multzo hau orkestrak erakuntza murriztuarekin operagintzan diharduenean antolatzen da. Denboraldian zehar 6 egitarau inguru antolatzen dira kamara-musikarekin.

Urte betean Orkestrak 90 ekitaldi inguru burutzen ditu, entseiu orokor irekiez eta eskola-entseiuez gainera, eta horrela guztira 110 bat eskaintza egiten zaizkie entzuleei.

Bere bizitzan zehar iharduera hauek ere izan ditu:

- Orkestra Gonbidatu gisa kontzertuak honako Jaialdietan: Madrid Cultural, Granada, Expo-Sevilla eta Alacanteko Musika Garaikidearen Jaialdia.

Jirak:

- Estatuan zehar: Andalusia, Castilla-La Mancha, Levante-Katalunia.
- Europan zehar: Alemania-Austria, 84, 87 eta 92.urteetan.

1995eko datorren udan, Gstaadeko Nazioarte Jaialdian bi kontzertu emateko gomita jaso du.

Hamabi urte hauetan, Orkestrak 200 musikagile inguruen 800 obra baino gehiago interpretatu ditu; horietatik, 180 obra 50 musikagile euskaldunek idatziak dira, 30 lan Lehen aldiz eskainiz. Azkenik, Orkestrak musika-obrak idaztea eskatu die euskal musikagileei. Horietatik lau estreinatu dira dagoeneko, Bernaola, Ibarrondo, de Pablo eta Larraurirenak, hain zuzen. Escuderok bosgarren eskari-obra prestatu du, 95/96 denboraldian estreinatuko dena.

Antolaketa eta alderdi teknikoari dagokienez, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa sendoturik dagoela esan daiteke, Euskal Herriaren ohizko jardueran behar bezala erroturik baitago, abonatu eta harpidedun ugarien fideltasunak erakusten duenez.

1992ko urriaren 31n, Hamburger Abendblatt egunkariko korrespontsalak Orkestra Alemania eta Austrian barrena egiten ari zen jiraren barruan Hamburgeko "Musikhalle"n interpretatu zuen kontzertuari buruzko iruzkinari "Nazioarteko maila" izenburua jarri zion. Titularrak, labur, baina argi eta garbi adierazten zuen Euskadiko Orkestra Sinfonikoak lortutako maila artistikoa.

Hobekuntza tekniko eta artistikoari eustea beharrezko eta arrazoizko eskakizuna da. Dena hobe daiteke eta, bide horretatik aurrera egiten den heinean, badirudi hobekuntzak zailagoak direla lortzen, eta, izan ere, halaxe dira. Erronka horri etengabe aurre egin beharrean gaude.

Baldintza horrekin batera, era berean garrantzizkoak diren beste helburu batzuk ageri dira gure etorkizun hurbilean: euskal musika-jole gehiago pixkanaka orkestran sartzea; oraindik orkestra iritsi ez den lekuetara bere jarduera hedatzea; errepertorio-eskaintza berriak egitea (kamara-musika, musika-talde txikiak, etab...), Orkestra hori guztia eskaintzeko gai baita.

Honela betetzen du, gure ustez, Orkestrak 1982an sortu zenean Eusko Jaurlaritzak eta Kultura Sailak bereziki, Elkarte Publiko gisa, gomendatu zioten egitekoa.

Ongizate-maila ez dute datu ekonomikoek soilik adierazten, kultur ondasunez gozatzeak ere herria aberats, ireki, lotu eta aurrerakoiago bihurtzen dute.

# ORQUESTA SINFONICA DE EUSKADI

*Constituye la Orquesta Sinfónica de Euskadi un Proyecto Nacional auspiciado en 1982 y desarrolldado desde el Gobierno Vasco, Departamento de Cultura.*
*Sus principales directores titulares han sido: el maestro Enrique Jordá, con quien la Orquesta inició su preparación en 1982, y a quién siguió el maestro Maximiano Valdés. Posteriormente se hizo cargo de la Orquesta Matthias Kuntzsch y desde 1988 a 1993 ha contado con el Maestro Gómez Martínez como Director Musical. En la actualidad los maestros Hans Graf y En Shao son, respectivamente, Director Musical y Principal Director invitado.*
*Sería una lista muy larga la dedicada a reseñar los maestros invitados y los solistas que han participado en nuestros conciertos, pero entre ellos figuran nombres muy señalados tanto en el ámbito musical europeo como en el mundial.*
*La Orquesta ha sobrepasado sus primeros mil doscientos conciertos públicos y ha sido pionera en ofrecer en su Sede ensayos generales abiertos.*
*Las distintas vertientes de su actividad regular son:*
*- Conciertos de abono en San Sebastián, Bilbao, Vitoria, Pamplona e Irún; actuaciones puntuales en Getxo, Baracaldo y otras poblaciones.*
*- Conciertos para escolares y jóvenes en la Sede.*
*- Conciertos de Navidad.*
*- Acutaciones en los Festivales del País: Quincena Musical, Temporada de la Opera de Bilbao ABAO, Musikaste, Festival Bach, Musikaldia.*
*- Ensayos generales abiertos en la Sede.*
*- Desde 1993 la Orquesta organiza un ciclo de actuaciones en su Sede de Miramón que se denomina "Matinées de Miramón". En ellas actúan pequeñas formaciones de miembros de la misma orquesta, jóvenes intérpretes que han sido programados en los conciertos de abono, coros de cámara y organistas.*
*- Orquesta de Cámara de la Orquesta Sinfónica de Euskadi. Este conjunto se organiza cuando la orquesta actúa con formación reducida en la producción de óperas. En la temporada se realizan del orden de 6 programas de música de Cámara.*
*En un año la Orquesta realiza del orden de 90 actuaciones, además de los ensayos generales abiertos y los ensayos escolares, de forma que vienen a efectuarse unas 110 presentaciones ante el público.*
*En su trayectoria han realizado:*
*- Conciertos como Orquesta Inivitada en los Festivales de Madrid Cultural, Granada, Expo-Sevilla, Festival de Música Contemporánea de Alicante.*
*Giras:*
*- En el Estado : Andalucía, Castilla-La Mancha, Levante-Cataluña.*
*- En Europa : Alemania-Austria, los años 84,87 y 92.*
*Está invitada el próximo verano de 1995 a ofrecer conciertos en el Festival Internacional de Gstaad.*
*La Orquesta ha interpretado en sus doce años de vida más de 800 obras de cerca de 200 compositores, de las cuales 180 han sido escritas por 50 compositores vascos de quienes se han estrenado 30 trabajos. Por último, ha encargado obras musicales a compositores vascos, de las que cuatro han sido ya estrenadas, siendo sus autores Bernaola, Ibarrondo, de Pablo y Larrauri. Escudero ha preparado el quinto encargo, que será estrenado en la temporada 95/96.*
*Se puede afirmar que la Orquesta Sinfónica de Euskadi se encuentra consolidada tanto en su aspecto organizativo y técnico, como debidamente implantada en el quehacer normal del País Vasco, como lo demuestra la fidelidad de sus numerosos abonados y suscriptores.*
*"Nivel internacional". El 31 de octubre de 1992, el corresponsal del periódico Hamburger Abendblarr tituló así su comentario al concierto que la Orquesta interpretó en el "Musikhalle" de Hamburgo durante su gira a Alemania y Austria. El titular definía escueta, pero también claramente, la altura artística alcanzada por la Orquesta Sinfónica de Euskadi.*
*La continuidad en el perfeccionamiento técnico y artístico es una exigencia necesaria y razonable. Todo es perfectible y, a medida que se avanza en esta línea, las mejoras parecen - lo son, de hecho - más difíciles de alcanzar. Es éste un permanente reto al que debemos hacer frente.*
*Junto a esta condición, otros objetivos también importantes aparecen en un próximo horizonte, la integración progresiva de mayor número de instrumentistas vascos, la ampliación de las actividades en áreas geográficas todavía no atendidas, nuevas ofertas de repertorio, cámara, conjuntos instrumentales, etc. - que la Orquesta puede ofrecer.*
*Entendemos que así cumple la Orquesta la misión que le fue enconmendada desde su fundación en 1982 por el Gobierno Vasco y su Departamento de Cultura, al que está adscrita como Socidad Pública.*
*El grado de bienestar no está definido unicamente por los datos económicos, también el disfrute de bienes culturales hacen a un pueblo más rico, más abierto, más cohesionado y más progresista.*

# JUAN JOSE MENA OSTERIZ

Gasteizeko "Jesús Guridi" Goimailako Musika Eskolatik sortutako arabar zuzendari gaztea, horretantxe ikasi baitzuen harmonia eta konposizioa Carmelo A. Bernaola maisuarekin. Orkesta zuzendaritzako goimailako ikasketak 1993an bukatu zituen Madrilgo Goimailako Musika Kontserbatorioan Enrique Garcia Asensio irakasle zuela eta ez edonola: bikain atera zuen eta gainera Ikasketa Bukaerako Ohorezko Saria ere. Gasteizeko Udalak eman zion "Guridi-Bernaola" bekari esker Alemania eta Frantziara joan zen zuzendaritzako ezagupenak hobatzera Sergiu Celibidache maisu handiaren entseiu, eskola zein ikastaroetara joateko aukera ematen dio honek.

Lan handia egin du "Jesús Guridi" Musika Eskolako Tresnajoleen Baltzuan, beronen zuzendaria denetik (1987) kontzertu ugari eskeini baitute Euskal Herrian zehar bere batutapean. Eskola bereko Tresnajole Taldearen sortzaile, musika garaikidearen egitarau asko eraman du Espainia guztitik, tartean euskal musikaegileen enkarguzko obra askoren estrenaldiak. Gasteizeko Gazteen Orkestaren Zuzendari Laguntzailea 1992an, musika garaikideko Cluster Cámara koruaren sortzaile eta zuzendaria -azken hauekin hainbat estreinaldi Europako Musikaldi garrantzitsutan-. Pergolesi-ren "La Serva Padrona" opera zuzendu zuen. Sajazarra-ko Aintzineko Musikaldiak ekoiztuta, 1993an.
Bilboko Orkesta Sinfonikoarekin 1993ko irailean izan zen orain arteko gonbite guztietako lehena, arrakasta lagun. Emiliano Ibargutxi euskal musikagilearen "Cantata" obraren estreinaldian berak zuzendu zuen Georgiako Orkesta Sinfonikoa 1993ko abenduan.

Euskadiko Orkesta Sinfonikoaren Zuzendari laguntzaile izendatu dute 1994an eta Gasteizeko Ganbara Orkestaren Zuzendari Titularra 1995ean.
Ohizko zuzendari gonbidatua Donostiako Musikaldian eta MUSIKASTEn. Rottenburg-eko (Alemania) Musika Garaikidearen Jaialdian eta Salonika-koan (Grezia) ere ezagutu dute.
Bere zuzendaritzapean hainbat grabazio burutu dituzte Radio Nacional de España (RNE), Radio-Televisión Española (RTVE), Euskal Irrati Telebista (EITB) edota Europako Irratien Elkarteak (UER).
Euskal Herriko Abesbatzen Federazioan lankide, baita Espainiakoan ere, koruen kontzertuak zuzendu eta zuzendarientzako ikastaroetan izan dute maisu. Udarteko denboraldian Errusiako Orkesta Nazionala, Euskadiko Sinfonikoa, Bilbokoa eta Iruneko Ganbarako Orkesta izango ditu bere batutapean.

*Joven director alavés formado principalmente en la Escuela Superior de Música "Jesús Guridi" de Vitoria-Gasteiz, donde estudió armonía y composición con su maestro Carmelo A. Bernaola.*
*En 1993 finalizó sus estudios superiores de Dirección de Orquesta en el Real Conservatorio Superior de Música de Madrid, con el maestro Enrique García Asensio, obteniendo las máximas calificaciones y el Premio de Honor Fin de Carrera. Gracias a la obtención de la Beca "Guridi-Bernaola" del Excmo. Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, realiza estudios de dirección de orquesta periódicamente en Alemania y Francia, asistiendo a ensayos, clases y cursos con el maestro Sergiu Celibidache.*

Juan Telleriaren biografia 33. orrialdean.
*Biografía de Juan Tellería en página 33.*

*Es desde 1987 director del Conjunto Instrumental de la Escuela de Música "Jesús Guridi"; con él, ha realizado una importante labor educativa, dirigiéndolo en gran cantidad de conciertos por todo Euskadi. Fundador del Grupo Instrumental de la misma Escuela, realiza periódicamente programas de música Contemporánea por todo el Estado, habiendo estrenado gran número de obras-encargo de compositores vascos. En 1992 fue Director Asistente de la Joven orquesta de Vitoria-Gasteiz. Fue igualmente fundador y director del Coro Cluster Cámara, especializado en música contemporánea con el que también ha realizado numerosos estrenos en importantes festivales europeos.*

*En Agosto de 1993 ha dirigido la ópera La Serva Padrona, de Pergolesi, en una producción del Festival de Música Antigua de Sajazarra.*

*En setiembre de 1993, hace su debut, con gran éxito al frente de la Orquesta Sinfónica de Bilbao, siendo posteriormente invitado a dirigir esta misma formación en numerosas ocasiones*

*En diciembre de 1993, ha dirigido a la Orquesta Sinfónica de Georgia en el estreno de la Cantata del compositor vasco Emiliano Ibargutxi.*

*En 1994, es nombrado Director A.sistente de la Orquesta Sinfónica de Euskadi y, en 1995, Director Tilular de la Orquesta de Cámara de Vitoria-Gasteiz.*

*Es invitado habitualmente a dirigir en los Festivales Quincena Musical Donostiarra y MUSIKASTE. Ha dirigido también en otros como el Festival de Música Contemporánea de Rottenburg (Alemania) y Festival de Salónica (Grecia). Con diversas formaciones, ha realizado grabaciones para Radio Nacional de España (RNE), Radio-Televisión Española (RTVE) Euskal Irratia Telebista (EITB) y Unión Europea de Radiodifusión (UER). Colaborador habitual de la Federación de Coros de Euskal Herria y de la Confederación Coral Española ha participado asiduamente en sus actividades, dirigiendo en encuentros corales e impartiendo enseñanza en los cursos de formación de directores.*

*Entre sus próximos compromisos orquestales para esta temporada de primavera-verano, destacan los que ha de desarrollar al frente de la Orquesta Nacional Rusa, Orquesta Sinfónica de Euskadi, Orquesta Sinfónica dc Bilbao y Orquesta de Cámara de Irún.*

# MARTA KNÖRR

Gasteiz eta Bilbon hasi zituen musika eta kantu-ikasketak eta Donostiako Musika Kontserbatorio Nagusian amaitu zituenean Goiko Graduaren Amaierako Ohorezko Saria eman zioten aho batez.

1988an etorkizunik hoberena izan zezakeen ahotsari Epaimahaiak ematen dion Sari Berezia irabazi zuen Bartzelonako "Francisco Viñas" Nazioarteko Kantu-Lehiaketan.

Ondoren Vienara abiatu zen ahots-errepertorioa eta teknika sakontzeko Susan Dennis irakaslearekin; era berean opera-errepertorioa ikasi du Itsuam Cserjan Vienako Operako musika-maisuarekin.

Opera eta oratorioak kantatu ditu Bilboko Orkestra Sinfonikoa, Sofiako Koru eta Orkestra Sinfonikoa, Arrasate Musikaleko Orkestra Sonfonikoarekin batera, Enrique García Asensio, Tomas Bugaj, Paolo Olmi, Tsanko Deelivorov, Henryk Zelinski eta Daniel Nazareth zuzendarien batutapean.

Lieda eta Kontzertu-kantua landu ditu bereziki eta horregatik kontzertu asko eman ditu Espainian zehar eta Vienako zenbait aretotan.

Juanma Bajo Ulloa zuzendariaren "El Reino de Victor" pelikularen musika azpimarra daiteke burutu dituen grabaketen artean.

*Cursa sus estudios musicales y de Canto en Vitoria y Bilbao, finalizándolos en el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián, donde obtiene por unanimidad el Premio de Honor de Fin de Grado Superior. En 1988 obtiene el Premio Especial del Jurado a la voz más prometedora en el Concurso Internacional de Canto "Francisco Viñas" en Barcelona.*

*Posteriormente se traslada a Viena, donde realiza un regular trabajo de profundización en la técnica y el repertorio vocal con la profesora Susan Dennis; estudia así mismo el repertorio operístico con Itsuam Cserjan, maestro musical de la Opera Estatal de Viena.*

*Sus intervenciones en óperas y oratorios le llevan a colaborar con la Orquesta Sinfónica de Bilbao, Coro y Orquesta Sinfónica de Sofía, Orquesta Sinfónica Arrasate Musical de Mondragón, bajo la batuta de directores como Enrique García Asensio, Tomás Bugaj, Paolo Olmi, Tsanko Deelivorov, Henryk Zelinski o Daniel Nazareth.*

*Debido a su especial interés por el Lied y la canción de concierto, ofrece recitales en diversos puntos de la geografía española así como en diferentes salas de la capital austriaca.*

*Entre sus grabaciones destaca la participación en la banda sonora de la película "El reino de Victor" del director Juanma Bajo Ulloa.*

**Edita:**
**Coral Andra Mari**
**Rentería, 1995**